



## KAPITAL BALTZUEN ANALISI ORGANIKOA: GOBERNU KORPORATIBOA ETA BARNE KONTROLA.

1

Merkataritza Zuzenbidea. Zuzenbide Sozietarioa. Zuzenbide Korporatiboa.

Andoni POLO ROCA

**AURKIBIDEA: I. Sarrera:** 1. Baltzuak.- **II. Kapital baltzuen egitura organikoa:** 1. Kapital baltzua. 1.1. Gobernu Korporatiboa.- **III. Kapital baltzuen jabetza eta titulartasuna:** 1. Baltzuaren jabetza eta titulartasuna. 2. Pertsona bakarreko baltzua.- **IV. Kapital baltzuen administrazioa:** 1. Baltzuaren administrazioa. 2. Administrazio duala edo bikoitza: eredu germanikoa. 3. Administrazio monista: espainiar kasua.- **V. Kapital baltzuen administrazioa espainiar legedian:** 1. Pertsona bakarreko Administrazioa. 2. Pertsona anitzeko Administrazioa. 3. Administrazio Kolegiatua: 3.1. Administrazio Kontseilua. 3.2. Administrazio Kontseiluko Presidentea edo Konpainiako Presidentea. 3.3. Kontseilari Delegatua (edo Kontseilari Eskuordetua) eta Batzorde Betearazlea. 3.4. Aldiberekotasuna, karguen bereizketa eta Kontseilari Koordinatzailea. 3.5. Administrazio Kontseiluko idazkaria. 3.6. Goi Zuzendaritza. 3.7. Zuzendariak.- **VI. Ondorioak.- Bibliografia.**

### I. Sarrera

#### 1. Baltzuak

Kapital baltzuek egungo ekonomian duten pisua nabaria da. Merkataritza-jardunei begira sortzen dira eta horiek garatzen dituzte, baina *ad extra* harremanak garrantzitsuak izan arren, *ad intra* harremanek ere bere garrantzia dute, izan ere, baltzua kudeatu behar da eta erabakiak hartu behar dira.

Askotan agertzen dira arazoak baltzuen barneko mailan, adibidez, Administrazio Organo eta Batzar Orokorren artean, edo, bereziki, erantzukizun kontuak direnean. Horregatik beharrezkoa zaigu aztertzea zein den kapital baltzu baten barne antolaketa, barnean aurkituko ditugun organoak eta organo horien arteko harremanak. Hori da lan honetan hizpide izango duguna: kapital baltzuaren egitura organikoaren azterketa<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Akziozko baltzu komanditarioa kapital baltzua ere den arren, guk beste biak bakarrik hartuko ditugu adibide lan honetan: Baltzu mugatua (*Sociedad Limitada, SL*) eta Baltzu anonimoa (*Sociedad Anónima, SA*). Baltzu tipo bi hauek oinarri hartuko ditugu ezagunenak eta erabilienak direlako, batez ere, erantzukizun mugatuko baltzuak direlako (*Limited Company, Co., Ltd*, ingelesezko balioakidea), bazkideek egin duten ekarpena arte erantzungo dutelako, gehiagorik ez.





## II. Kapital baltzuen egitura organikoa

### 1. Kapital baltzua

Kapital baltzuen egitura organikoa aztertzean bi eremu desberdinu behar ditugu: jabetza-eremua eta administrazio/kudeaketa eremua. Jabetza eremuari dagokionez, nor da baltzuaren jabea? Erantzuna argia da: akziodunak, baltzu anonimoan, eta bazkideak, baltzu mugatuetan. Bazkide guztiek baltzuaren kapital sozialaren 100% biltzen dute eta, ondorioz, enpresaren jabeak dira (panoramika zibil erreal batetik).

Baina jabetzaz bereiz, baltzua administratu behar da, baltzuaren eguneroko funtzionamenduz arduratzen den norbait behar du enpresak. Horri administrazio deritzogu eta espainiar legedian hiru mota eduki ditzake horrek: 1) pertsona bakar batek administrazio osoa bere gain hartzea, 2) pertsona batek baino gehiagok administrazioa bere gain hartzea edo 3) administrazioa organo kolegiatu batek bere gain hartzea.

#### 1.1. Gobernu Korporatiboa

Honi guztiari Gobernu Korporatiboa (*Gobierno corporativo*) esaten diogu<sup>2</sup>, eta horrek erreferentzia egiten dio enpresaren gobernu osatzen duten hiru botereei (eta haien arteko harremanari): Akziodunak/Bazkideak, Administrazio organoa eta Goi Zuzendaritza.

2014. urtean 1/2010 Errege-Dekretu Legegilea, uztailaren 2koa, Kapital Baltzuen Legearen testu bategina onartzen duena (KBL) aldatu egin zen Gobernu korporatiboa hobetzeko helburuarekin. Urte horretan, 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, Gobernu Korporatiboa hobetzeko Kapital Baltzuen Legea aldatzen duena onartu zuen Espainiako Parlamentuak eta lege horrek KBL osatu zuen gobernu korporatibo arloan.

## III. Kapital baltzuen jabetza eta titulartasuna

### 1. Baltzuaren jabetza eta titulartasuna

Aurreko atalean esan dugun moduan, baltzuaren jabetza akziodunei, baltzu anonimoan, eta bazkideei, baltzu mugatuetan, dagokie, bazkide guztiek baltzuaren kapital sozialaren 100% biltzen baitute. Baltzuaren jabetza horiei dagokienez, argi dago beraiek hartu behar dituztela erabaki "potoloak" (estatutu sozialen aldaketa, baltzuaren desegitea, kapital gehikuntza, administratzaileak izendatzea...).

<sup>2</sup> REYES SEPÚLVEDA, Jessica María, "Importancia del gobierno corporativo como herramienta para la gestión del riesgo de las empresas cotizadas y no cotizadas y las mejoras recientes a la regulación española", *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad (REDS)*, 8. zk., 2016, 255.-264. or., 258.-260. or.

### III. Ikasleen ekarpenak



3

Erabaki horiek hartzeko bazkideak bildu egiten dira eta horri Akziodunen Batzar Orokorra (*Junta General de Accionistas*), baltzu anonimoaren kasuan, edo Batzar Orokorra (*Junta General*), orokorrean, deritzo.

Estatu batekin analogia egiteko (argiago ikus dadin) Batzar Orokorra estatuko Parlamentua litzateke (Estatu osoaren burujabetzaren jabea/enpresa osoaren jabea) eta Administrazioa Estatuko Gobernuak litzateke (arlotan betearazleak arduratzen dena).

## 2. Pertsona bakarreko baltzua

Gerta daiteke, halere, baltzuak bazkide bakarra izatea, kasu horretan pertsona bakarreko baltzu baten aurrean geundeke (*sociedad unipersonal*). Kasu horretan "Parlamentua" pertsona baten esku egongo litzateke eta berak hartuko lituzke erabaki guztiak, bera izango litzatekeelako enpresa osoaren jabea %100an (KBL 12.-17. art.).

Pertsona bakarreko baltzu hori jatorrizkoa edo eratorria izan daiteke, jatorrizkoa baltzua eratzean bazkide bakarra baldin bazegoen izango da eta eratorria sorrera momentuan bazkide bat baino gehiago egonda, beste bazkideak beraien akzio (BA) edo partizipazio sozialak (BM) baten esku uzten dituztenean agertuko zaigu.

## IV. Kapital baltzuen administrazioa

### 1. Baltzuaren administrazioa

Administrazioa dugu, lehen esan bezala, baltzuaren "Gobernuak" eta horren arlotan betearazle eta kudeatzailea eramango duen organoa. Administrazioa, hortaz, oso garrantzitsua izango da baltzuaren egunerokotasunean. Baltzuaren administrazioari dagokionez bi eredu aurki ditzakegu zuzenbide konparatua baldin bagoaz: 1) sistema dual edo bikoitza (eredu germanikoa) eta 2) sistema monista (eredu frantsesa).

### 2. Administrazio duala edo bikoitza: eredu germanikoa

Sistema dual edo bikoitzean kontrol organo (edo zaintza organoa) bat eta zuzendaritza organo bat izango dugu, kontrol organoa (edo zaintza organoa) baltzuaren kudeaketa zaintzeaz arduratuko da eta zuzendaritza organoak baltzua kudeatuko du eta kontrol organoa informatu beharko du<sup>3</sup>. Sistema monistan, aldiz, administrazio organo bat edukiko dugu, organo bakarra.

<sup>3</sup> FUENTES NAHARRO, Mónica (2009): "La función del órgano de control de una sociedad cooperativa europea domiciliada en España", *REVESCO: revista de estudios cooperativos*, 97. or., 58.-89. or.



### III. Ikasleen ekarpenak



Sistema duala eredu germanikoan aurki dezakegu eta sistema monista eredu frantsesean. Alemaniako *Aktiengesellschaft* (baltzu anonimoa) baltzuan zaintza kontseilua (*Aufsichtsrat*) eta zuzendaritza kontseilua (*Vorstand*) aurkituko ditugu. Zaintza kontseilua (*Aufsichtsrat*) zenbaki bakoitiko kidez osatzen da eta, gutxienez, 3 kidez. Zaintza kontseiluko kideak ezin dira izan zuzendaritza kontseiluko (*Vorstand*) kide eta, alderantziz, zuzendaritza kontseiluko kideak ezin dira zaintza kontseiluko kideak izan.

Baltzuaren batzar orokorrak izendatuko du zaintza kontseilua (*Aufsichtsrat*) eta langileek zaintza kontseiluaren kideen herena aukeratzeko eskubidea daukate, kudeaketa-kidetzaren emanetz<sup>4</sup>. Zaintza kontseiluak zuzendaritza kontseiluko (*Vorstand*) kideak aukeratu, izendatu, kontrolatu eta kaleratzen ditu; eta zaintza kontseilu horrek zuzendaritza kontseiluaren jardunak arautu eta zehazten ditu, baltzuaren ekonomia- eta finantza- egonkortasuna bermatuz.

### 3. Administrazio monista: espainiar kasua

Sistema monistari eutsi dio Espainiak, eredu frantsesari jarraiki. Espainiar legediaren arabera, kapital baltzuek administrazio bakarra edukiko dute: administrazio organoa; eta organo horrek hartuko du bere gain baltzuaren kudeaketa.

## V. Kapital baltzuen administrazioa espainiar legedian

Eredu frantsesaren sistema monista jaso du espainiar legediak, administrazio organoa (administrazio bakarra) eta administrazio organo hori pertsona bakarrekoa, pertsona anitzekoa edo kolegiatua izan daitekeela hasieran aipatu dugu (KBL 210.1. art.). Goazen orain baltzuaren administrazioak eduki ditzakeen ñabardurak ikusten:

### 1. Pertsona bakarreko Administrazioa

Pertsona- akarreko Administrazioaz (*Administración unipersonal*) hitz egiten dugunean honi buruz hitz egiten dugu: Administratzaile bakarra (*Administrador/a único/a*). Baltzu baten administrazioa pertsona bakar batek egiten duenean agertuko da figura hau. Pertsona horrek ordezkatzeko du Administrazio Kontseilua, bera izango da “Administrazioa”. Berak edukiko du bere menpe enpresaren administrazio osoa<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> MORILLAS JARRILLO, María José, GRECHENIG, Kristoffel, "La administración de la Sociedad Anónima Europea en el Reglamento (CE) de 8 de octubre de 2001. El sistema dualista austriaco y alemán, y la adaptación del derecho español", *Revista de Derecho de los Negocios*, 145. zk., 2002, 1.-27. or., 9.-14. or.

<sup>5</sup> Adibide moduan hauxe jar dezakegu: Espainiako RTVE hedabide publikoak (*Corporación de Radio y Televisión Española, S.A.*), baltzu anonimoa denak, kasik beti eduki du Administrazio Kontseilua baltzua administratzeko, baina 2018. urteaz geroztik, egun, baltzuak administratzaile bakarra dauka, Rosa María Mateo andrea, 2018ko uztailaren 27tik. Berak hartzen ditu *Corporación de Radio y Televisión Española, S.A.* baltzuaren erabaki guztiak (adib. nor kaleratu, nor kontratatu, nork emango duen TVEko *Telediario*...).





## 2. Pertsona anitzeko Administrazioa

Administrazioa pertsona batek baino gehiagok eramaten dutenean agertuko zaigu pertsona- anitzeko Administrazioa (*Administración pluripersonal*, gaztelaniaz). Kasu honetan, 2 administratzaile edo gehiago edukiko ditugu eta beraien jardunera izan daiteke solidarioa edo mankomunatua.

Solidarioa izango da administratzaileetatik edonork har dezakeenean erabaki bat (beste edonor gabe), baina kasu horretan edonork erantzun dezake ere (mugatua, betiere, administratzaile solidario batek baltzuarentzat kaltegarria den erabakiren bat hartu baldin badu, berak erantzungo du, ez bestek).

Administratzaileak mankomunatu izango dira, ordea, denek batera hartu behar dituztenean erabakiak. Kasu honetan, administratzaile mankomunatu kasuan, bakarrik 2 administratzaile egon daitezke, zergatik? Esan dugu denek batera hartu behar dituztela erabakiak, orduan, bi baino gehiago baleude, 3 edo 7, gehiengoz hartu beharko lirateke erabakiak eta orduan Administrazio Kontseilu bat agertuko litzaiguke (KBL 210.2. art.). Horregatik 2 izan behar dira administratzaile mankomunatuak, gehiago izatekotan orain aztertuko dugun hurrengo figura agertuko litzaigukeelako: Administrazio Kontseilua.

## 3. Administrazio Kolegiatua

Administrazio Kolegiatua (*Administración colegiada*, gaztelaniaz) baltzu handienetan agertuko zaigu, gehienbat. Baltzu handiek egitura handi eta konplexua dute eta horrek behartzen ditu Administrazio egitura ere handia izaten. Kasu honetan talde bat izango dugu Administrazioan eta talde horrek bere gain hartuko du baltzuaren Administrazioa. Baina egitura honek konplexutasuna ere badu, ikus dezagun zeintzuk diren administrazio kolegiatuaren nondik norakoak.

### 3.1. Administrazio Kontseilua

Administrazioa organo kolegiatua denean, Administrazio Kontseilu deituko diogu (KBL 242. art. eta hur.), *Consejo de Administración*, gaztelaniaz.

Kasu honetan, ez ditugu administratzaileak desberdinduko, ez dago administratzaile "A" eta Administratzaile "B", talde bat baizik: talde osoa da Administrazioa eta talde moduan egikaritzen dute administrazio-ahalmena, erabakiak gehiengoz hartuz (horregatik 2 administratzaile mankomunatu baino gehiago dagoenean figura honetara pasatuko gara automatikoki).



Talde horretan dauden pertsonak Kontseilariak dira (*consejeros*) eta batzarretan bildu ohi dira baltzuaren administrazioari buruzko erabakiak hartzeko. Administrazio Kontseiluaren parte dira: Presidentea edo Kontseiluburua, Presidenteordea (balego), batzordekide edo kideak (*vocal, vocales*) eta idazkaria (*secretario/a*).

Kontseilariak, bestalde, mota anitzekoak izan daitezke (KBL 529. *duodecies* art.): Kontseilari betearazleak/exekutiboak (*Consejeros ejecutivos*), Igandetako kontseilaria (*Consejeros dominicales*), Kontseilari independenteak (*Consejeros independientes*)... Ikusten dugunez, Administrazio forma konplexuen aurrean gaude eta mota honetako administrazioa baltzu handietan aurkituko dugu<sup>6</sup>.

Osaerari erreparatuz, Batzar Orokorrak aukeratu eta izendatuko du Administrazio Kontseilua, horren ahalmenen barruan baitago (KBL 214.1. art.). Administrazio Kontseiluko gutxieneko kopurua hiru kontseilari izango da (KBL 242.1. art.) eta estatutu sozialek jaso ahalko dute kopuru zehatza edo gutxieneko eta gehieneko kopurua. Baltzu mugatuetan, ordea, berezitasuna ematen da, izan ere, gutxieneko kopuruaz aparte (hiru kontseilari), gehieneko kopurua ere ezartzen zaie mugatuei: hamabi kontseilari (KBL 242.2. art.).

Esan dugun moduan Administrazio Kontseilua Batzar Orokorrak aukeratzen eta izendatzen du, baina hemen salbuespen bat agertuko zaigu: kooptazioa (KBL 244. art.). Kooptazioa da Administrazio Kontseilu batean kontseilari batek kargua uzten badu edo hiltzen bada eta ordezkorik ez badago, Administrazio Kontseiluak berak aukeratu eta izendatu ahalko du kontseilari bat, akziodunen artean aukeratuz, pertsona horrek eserleku huts hori bete dezan, lehenengo Batzar Orokorra batzartzen den arte (hori batzartzen denean Batzar Orokorrak aukeratuko duelako).

### 3.2. *Presidentea edo Konpainia-burua*

Presidentea, Konpainia-burua edo Administrazio Kontseilu-burua (*Presidente de la Compañía, Presidente del Consejo de Administración* [ES]; *Chair, Chairman* [EN]) baltzuaren Administrazio Kontseiluaren presidentea (Kontseiluburua) da hau eta Kontseiluaren zuzendaritza administratiboa egiten du (KBL 529. *sexies* art., 246. art.).

Administrazio Kontseiluak Presidente bat edo Presidente bat eta presidenteorde batzuk izenda ditzake<sup>7</sup> (KBL 245.1. art.). Presidenteak ez dauka baltzuaren administrazioaren gaineko botererik (administrazioa Administrazio Kontseiluari dagokio), Administrazio Kontseiluaren administrazioaren gainean baizik (administrazioaren administrazioa), hau da,

<sup>6</sup> Adibidez, *Grupo Santander SA* baltzuaren Administrazio Kontseilua 16 kidek osatzen dute<sup>6</sup>: Presidente batek, Kontseilari Delegatu batek, hiru Presidenteordek, hamar kidek (*vocales*) eta Idazkari orokor batek.

<sup>7</sup> Ana Patricia Botin and. *Grupo Santander SA* baltzuaren presidentea da (Administrazio Kontseiluaren presidentea), baina *Grupo Santander SA* baltzuaren Kontseilari Delegatua José Antonio Álvarez Álvarez jn. da, bi kargu desberdin dira.



baltzua Administrazio Kontseiluak administratzen du eta presidentek Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua eramaten du (KBL 246.1. eta 529 *sexies* art.):

- a) Administrazio Kontseilua deitu, eguneko ordena ezarri, kontseiluaren batzarrak presiditu eta eztabaidak eta deliberazioak zuzendu;
- b) Akziodunen Batzar Orokorra presiditu, estatutuek debekatzen ez dutenean (KBL 191. art.);
- c) Kontseilariak, batzarra egin baino lehen, eguneko ordenan jasotako puntuei buruz erabakiak hartzeko, informazio nahiko jasotzen dutela zaindu;
- d) Batzarretan eztabaida eta kontseilarien parte hartzea aktiboa bultzatzea, horien erabakiak modu librean hartzeko ahalmena babestuz

#### **3.3. Kontseilari Delegatua (edo Kontseilari Eskuordetua) eta Batzorde Betearazlea**

Administrazio Kontseiluak kontseilari bati eskumenak ematen dizkionean agertuko zaigu Kontseilari Delegatua, Kontseilari Eskuordetua edo Kontseilari Betearazle/Exekutiboa (*Consejero Delegado, Consejero Ejecutivo, Director Ejecutivo, Director General* [ES]; *Chief executive officer, CEO, Managing director, MD* [EN])<sup>8</sup>.

Estatutu sozialek debekatzen ez dutenean Administrazio Kontseiluak Kontseilari Delegatu bat edo batzuk izendatu ahalko ditu edo Batzorde Betearazle bat edo batzuk, horien edukia, mugak eta eskuordetze modalitateak argi zehaztuz, betiere (KBL 249.1. art.)

Presidenteak ez bezala, kontseilari delegatuak baltzuaren administrazioaren gaineko boterea dauka, Administrazio Kontseiluak eman dizkionak, betiere, eta bere kudeaketa beti egongo da Administrazio Kontseiluaren eta akziodunen kontrolaren menpe (KBL 249., 249. *bis* eta 529. *ter* artikulua). Zenbat eta botere gehiago eman Kontseilari Delegatu bati, orduan eta "administratzaile bakarraren" figurarekin parekidetasun gehiago egin genezake.

Kontseilari Delegatu batek eduki dezakeen boterea dela eta KBLk eskuordetu-ezinezko ahalmen batzuk zerrendatzen ditu 249. *bis* artikuluan. Eskuordetu ezinak izango dira kudeaketaren eta ikuskapenaren funtsezko nukleoa diren erabakiak:

- a) Eratutako batzordeen eta izendatutako organo betearazle eta zuzendaritza organoen funtzionamendu eta jardunaren ikuskapena edo gainbegiratzea;
- b) Baltzuaren politika eta estrategia orokorrak;
- c) 203. artikulua jasotzen duen leialtasun betebeharretik eratorritako betekizunen baimentzea edo dispentsa;
- d) Bere antolamendua eta funtzionamendua;
- e) Kontu orokorrak egitea eta horiek Batzar Orokorri aurkeztea;

<sup>8</sup> Lehen aipatu moduan *Grupo Santander SA* baltzuaren Kontseilari Delegatua José Antonio Álvarez Álvarez da eta ez Ana Patricia Botin, azken hori Presidentea da. *Telefónica SA* baltzuan José María Álvarez-Pallete López da Presidentea (Konpainiaren presidentea, konpaini-burua) eta Ángel Vilá Boix da Kontseilari Delegatua.



- f) Legeak Administrazio Organoari eskatzen dion edozein motako txosten bat egitea, txosten horren operazioa ezin denean eskuordetu, betiere;
- g) Baltzuaren Kontseilari Delegatuak izendatu eta kargugabetu, baita horien kontratuen baldintzak ezartzea ere;
- h) Kontseiluarekin edo horren kide batekin menpekotasun zuzena duten zuzendariak izendatu edo kargugabetu, baita horien kontratuen baldintzak ezartzea ere;
- i) Kontseilarien ordainsariei buruzko erabakiak, estatutuen eta Batzorde Orokorrak ezarritako ordainsarien politikaren barruan;
- j) Akziodunen Batzar Orokorra deitzea eta eguneko ordena eta akordio proposamenak egitea;
- k) Akzio edo partizipazio propioen politika;
- l) Batzar Orokorrak Administrazio Kontseiluari eskuordetutako ahalmenak, salbu eta Batzar Orokorrak azpi-eskuordetzea egitea berariaz baimendu duenean;

KBLk, bestalde, Kontseilari Delegatuak kontratua eduki behar duela agintzen du, bere 249.3. artikuluan. Kontratu hori baltzuaren eta izendatutako Kontseilari Delegatuaren artean egin beharko da eta Administrazio Kontseiluak onartu beharko du kontratua horren kideen bi hereneko gehiengoz eta bozketa horretan Kontseilari Delegatu horrek ezingo du parte hartu. Hau da kontratua egin beharko da, eta Administrazio Kontseiluak onartu beharko du: kontseilari bat Kontseilari Delegatu izendatzen denean edo kontseilari bati funtzio betearazleak ematen zaizkionean beste titulu baten bidez (adib. botere orokor baten bidez)<sup>9</sup>.

Kontratu horrek jaso beharko du ordainsaria ekarriko duten kontzeptu denak (zehaztutako kontzeptu horietatik at ezingo du ordainsaririk jaso), aurretiazko kargugabeteagatik kalte-ordaina ezarri beharko du eta baltzuak aseguru primak edo aurrezki planak direla eta ordaindu beharko dituen zenbatekoak; kontratuak Batzar Orokorrak onartutako ordainsari politika bete beharko du. Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak hori gehitu dio administratzaile karguak doako izaera izango duela eta kargu hori daukanak ordainsaria jasoko duela kontratua formalizatzean<sup>10</sup>. Kontseilari Delegatuaren jardunari administratzaileen jardunari orokorrean ezarritako mugak ezarriko zaizkio.

#### **3.4. Aldiberekotasuna, karguen bereizketa eta Kontseilari Koordinatzailea**

Gerta daiteke pertsona bat Kontseilari delegatu eta Presidente izatea aldi berean, bi karguak aldi berean egikaritzuz, kasu horretan aldiberekotasuna (*simultaneidad*) agertuko zaigu. Baina, aldiberekotasuna ematen denean, bi karguak ez dira “batzen”, pertsona horrek bi

<sup>9</sup> CABANAS TREJO, Ricardo (2015): "La retribución del consejero delegado y la celebración de un contrato con la sociedad", Diario La Ley, 8.494. zk.

<sup>10</sup> COHEN BENCHETRIT, Amanda (2016): "Doctrina consolidada de la Dirección General de los Registros y del Notariado en materia de retribución del consejero ejecutivo y del consejero delegado", *Revista Lex Mercatoria*, 4. zk., 29.-34. or.







karguak edukiko ditu, aldi berean, batzuetan egintza batzuk egingo ditu presidente moduan eta beste batzuetan kontseilari delegatu moduan<sup>11</sup>.

Esan bezala, KBLk baimentzen du Administrazio Kontseiluko Presidentea Kontseilari Delegatu bat izatea, hori Administrazio Kontseiluak onartuko du, baina kasu honetan kontseiluaren bi hereneko gehiengoz (KBL 529. *septies* art.), eta ez gehiengo orokorrean Presidentea kontseilari arrunta denean bezala (KBL 245.2. art.).

Presidentea Kontseilari Delegatu denean, Administrazio Kontseiluak, Kontseilari Betearazlearen abstentzioarekin, Kontseilari independenteen artetik Kontseilari Koordinatzaile bat izendatu beharko du, nahitaez, eta Kontseilari Koordinatzaile horrek ahalmen bereziak izango ditu Administrazio Kontseiluaren bilerak deitzeko edo dagoeneko deitu den bilera bateko eguneko ordenan puntu berriak sartzeko eta kontseilari ez betearazleak batzartzeko eta Administrazio Kontseiluko Presidentearen ebaluazio periodikoa zuzentzeko.

Espezialitate mota hau baltzu kotizatuetakoa da batez ere, baina edozein baltzutan ager daiteke, noski.

#### 3.5. *Administrazio Kontseiluko idazkaria*

Administrazio Kontseiluaren idazkaritza funtzioak idazkariak (*secretario/a*) betetzen ditu. Administrazio Kontseiluak hautatzen du idazkaria, izendapen eta ordainsari batzordearen txostenaren ondoren, eta idazkari bakarra izenda daiteke edo idazkari bat eta idazkariorde batzuk (*vicesecretarios*)<sup>12</sup>.

KBLk aukera ematen du idazkaria kontseilaria izateko edo ez eta normalean ez da kontseilaria izaten, legelari edo abokatu bat baizik, idazkariaren betebeharren artean legea beteko dela zaintzea delako eta horretarako idazkariak zuzenbidea jakitea ondo legoke.

Administrazio Kontseiluko idazkariaren funtzioak hauexek dira (KBL 529 *octies* art.):

- a) Administrazio Kontseiluaren dokumentazioa gorde, bileren garapenak akta liburuetan jasota uztea eta horien edukia eta hartutako erabakien fede ematea;

<sup>11</sup> Honen adibide kasu hauexek ditugu: *INDITEX SA* baltzuan Pablo Isla Álvarez de Tejera jn. Presidentea eta Kontseilari Delegatua da, aldi berean. 2005ean izendatu zuten Kontseilari Delegatu eta 2011n Presidente, gaur egun, *INDITEX SA* baltzuan, bi karguen aldiberekotasuna ematen da. Amancio Ortega Gaona jn., ordea, Administrazio Kontseiluko kide (*vocal*) soila da; baina, jabetza eremuari dagokionez, bera da akziodun nagusia, argi ikusi daiteke hemen bikoiztasun hori. *Iberdrola SA* baltzuan ere berdín gertatzen da: José Ignacio Sánchez Galán jn. da Presidente eta Kontseilari Delegatu, aldi berean. *ArcelorMittal* baltzuak antzeko eskema jarraitzen du: Lakshmi Narayan Mittal jn. da Presidente eta Kontseilari Delegatua.

<sup>12</sup> SÁEZ CHAMORRO, Rafael (2015): "El secretario del consejo de administración de las sociedades cotizadas", ARIAS VARONA, Francisco Javier, RECALDE CASTELLS, Andrés Juan (2015): *Comentario práctico a la nueva normativa de gobierno corporativo: Ley 31/2014, de reforma de la Ley de Sociedades de Capital*, Dykinson, Madril, 171.-174. or.



- b) Administrazio Kontseiluaren jardun guztiek ezargarria den araudi eta legedia betetzen dutela zaintzea eta horiek estatutu sozialak eta beste barne araudia jarraitzen dutela ziurtatzea;
- c) Presidenteari lagundu horren kontseilariek bilera baino lehen horien jarduna modu egokian bete ahal izateko garrantzizko informazioa modu egokian jasotzearen betebeharrean.

Idazkariak, bestalde, Administrazio Kontseiluko idazkari funtzioak betetzeaz aparte, estatutuek kontrakoa ezartzen ez dutenean, Batzar Orokorreko idazkari funtzioa ere beteko du eta Batzar Orokorretan idazkaria izango da (KBL 191. art.). Halere, errealitatean, baltzu handietan Batzar Orokorretan idazkari moduan notario bat izendatu ohi da, fede publikoa eman dezan eta Batzar Orokorrean sortzen diren arazoei aurre egiteko.

#### 3.6. Goi Zuzendaritza

---

Goi-Zuzendariak (*Alto Directivo/a*) ahalorde orokorra edukiko du eta funtzio betearazleak edukiko ditu. Bere kontratua Lan Zuzenbideak arautuko du, baina berezia izango da, arau berezi bat izango du: abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege-Dekretuak, Goi-Zuzendaritzako kideen izaera berezia duen lan-harremana arautzen duenak arautuko du.

Goi Zuzendaritzako kideak izango dira enpresaren jabetza juridikoari lotutako botereak egikaritzen dituzten langileak dira, baltzuaren Administrazio-erakundearen kontrolaren menpe, betiere<sup>13</sup>. Goi Zuzendaritzako kontratu hauek, orokorrean, kargugabetzeagatiko kalte-ordaina eraman ohi dute eta arazoak ematen dituen gaia dugu hori, kalte-ordain hori ezartzea noiz den onargarria eta noiz ez eztabaidan jartzen delako askotan<sup>15</sup>.

Gerta daiteke ere kontseilari batek (Administrazio Kontseiluaren kide batek) goi-zuzendaritzako kontratua edukitzea. Kasu horretan pertsona horrek bi harreman edukiko ditu baltzuarekin: bata organikoa, hots, sozietarioa (administrazio organoko kidea) eta bestea lan harreman berezia (1382/1985 ED). Biak mantentzen al dira? Ez, arazoak egotekotan harreman sozietarioa (organikoa) gailenduko da eta Kontseilari Delegatutzat edo Exekutibotzat hartuko da. Nabardura hau oso liskartsua da merkataritza-arloan.

#### 3.7. Zuzendariak

---

<sup>13</sup> HERNÁNDEZ GARCÍA, Cristina (2004): "El contrato laboral de alta dirección", *Boletín económico de ICE, Información Comercial Española*, 2.805. zk., 1.000.-1.008. or.

<sup>14</sup> 1382/1985 ED 1.2. art.

<sup>15</sup> RODRÍGUEZ COPÉ, María Luisa (1998): "Los pactos indemnizatorios en la extinción del contrato de alta dirección", *Temas laborales: Revista andaluza de trabajo y bienestar social*, 49. or., 83.-132. or.





Zuzendariaz (*Directivo/a, Director/a*) hitz egiten dugunean ez gara Zuzenbide Sozietarioan mugituko, zuzendariak ez direlako baltzuaren egitura organikoaren parte. Zuzendari batek baltzuak bere objektu soziala egikaritzeko bereizi dituen atal bateko ardura hartzen du. Adibide hartuko dugu hemen Marketing Zuzendari bat (*Director/a de Marketing*) edo Finantza Zuzendari bat (*Director/a Financiero/a, Chief financial officer, CFO*), zuzendari horrek edukiko duen ahalordea sektoriala da, bere arlokoa izango da, murriztua<sup>16</sup>.

Esan bezala, zuzendariaren kontratua Lan Zuzenbideak arautuko du ere, baina bere kontratua lan-kontratu arrunta izango da, berezitasunik gabekoa, Langileen Estatutuak arautua.

## VI. Ondorioak

Kapital baltzuen egitura oso garrantzitsua da eta ongi bereizi behar dira egituraren osagai guztiak. KBLk ez ditu figura guzti hauen bereizketa ondo antolatu legean zehar; arlo horretan, lege oso zabala eta landua izan arren, pixka bat eskasa da.

Figuren ezberdintzeak baltzuaren beste edozein ariketa egiteko oinarria emango digu, adibidez, erantzukizun arloa edo, baltzuak epaiketa bat duenean, horren izenean nor aritu daitekeen. Kasu horretan, jakin beharko dugu nor den nor eta bakoitzak zein eskumen dituen, erantzukizuna mugatzeko. Baina ez hori bakarrik gobernu korporatiboaren garrantzia handia da, bazkide minoritarioei babesia eman diezaiekeelako.

Horrela, Zuzenbide sozietarioak eta korporatiboak ematen diguten tresnekin baltzuaren egitura marraztu beharko dugu, oinarri-oinarrizkoa izango baitzaigu egituraren ñabardura guztiak ezagutzea.

## Bibliografia

- ARIAS VARONA, Francisco Javier, RECALDE CASTELLS, Andrés Juan (2015): *Comentario práctico a la nueva normativa de gobierno corporativo: Ley 31/2014, de reforma de la Ley de Sociedades de Capital*, Dykinson, Madril.
- BROSETA PONT, Manuel, eta MARTÍNEZ SANZ, Fernando (2016): *Manual de Derecho Mercantil, Vol. I, Introducción y Estatuto del Empresario. Derecho de la competencia y de la propiedad industrial. Derecho de Sociedades*, Ed. Tecnos, Madril.

<sup>16</sup> Espainiako RTVE hedabide publikoak administratzaile bakar bat dauka (Administrazioa), lehen esan bezala, eta akzio guztiak Estatuarenak dira (publikoa delako). Baina baltzuak zuzendari asko ditu: Eladio Jareño (TV Eren Zuzendaria), Paloma Zuriaga (RNEren Zuzendaria), Begoña Alegría (Informativos TV Eren Zuzendaria)... Beraiek ez dute harreman sozietario edo organikorik, ez dira administratzaile edo bazkide (administratzailea Rosa María Mateo and. da eta bazkide bakarra estatua), langile baizik, lan kontratua dute, baina zuzendari dira, baltzua bere objektu soziala betetzeko arlo askotan banatu behar da eta arlo bakoitzak bere zuzendaria eduki behar du.





- CABANAS TREJO, Ricardo (2015): "*La retribución del consejero delegado y la celebración de un contrato con la sociedad*", Diario La Ley, 8.494. zk.
- COHEN BENCHETRIT, Amanda (2016): "Doctrina consolidada de la Dirección General de los Registros y del Notariado en materia de retribución del consejero ejecutivo y del consejero delegado", *Revista Lex Mercatoria*, 4. zk., 29.-34. or.
- EMBID IRUJO, José Miguel (2013): *Introducción al derecho de sociedades de capital*, Marcial Pons, Madril.
- FUENTES NAHARRO, Mónica (2009): "La función del órgano de control de una sociedad cooperativa europea domiciliada en España", *REVESCO: revista de estudios cooperativos*, 97. or., 58.-89. or.
- GÓMEZ BETANCOURT, Gonzalo, eta ZAPATA CUERVO, Natalia, "Gobierno Corporativo. Una comparación de códigos de gobierno en el mundo, un modelo para empresas latinoamericanas familiares y no familiares.", *Entramado*, 9. Bol., 2. zk., 2013., 98.-117. or.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, Cristina (2004): "El contrato laboral de alta dirección", *Boletín económico de ICE, Información Comercial Española*, 2.805. zk., 1.000.-1.008. or.
- JUSTA MENCÍA, Javier (2015): *Comentario a la reforma del Régimen de las Sociedades de Capital en materia de gobierno corporativo*, Editorial Civitas, Madril.
- MORILLAS JARRILLO, María José, GRECHENIG, Kristoffel, "La administración de la Sociedad Anónima Europea en el Reglamento (CE) de 8 de octubre de 2001. El sistema dualista austriaco y alemán, y la adaptación del derecho español", *Revista de Derecho de los Negocios*, 145. zk., 2002, 1.-27. or.
- ORTIZ DEL VALLE, María del Carmen, "La reforma del gobierno corporativo de las sociedades de capital", *Revista de Sociales y Jurídicas*, 11. zk., 2016, 423.-453. or.
- REYES SEPÚLVEDA, Jessica María, "Importancia del gobierno corporativo como herramienta para la gestión del riesgo de las empresas cotizadas y no cotizadas y las mejoras recientes a la regulación española", *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad (REDS)*, 8. zk., 2016, 255.-264. or.
- RODRÍGUEZ COPÉ, María Luisa (1998): "Los pactos indemnizatorios en la extinción del contrato de alta dirección", *Temas laborales: Revista andaluza de trabajo y bienestar social*, 49. or., 83.-132. or.
- VALPUESTA GASTAMINZA, Eduardo (2015): *Comentarios a la Ley de Sociedades de Capital: Estudio legal y jurisprudencial*, Bosch, Bartzelona.